

Joko Alai, Bizkaiko Herri Arteko pelota finalean nagusi umeetan

11. orrialdea

Dimako Kalenturak Lehiaketeta

Dimako Udalak eta liburutegiak Dimako Kalenturak II. Ipuin Erotikoen Lehiaketeta antolatu dabe. Lanak urri lehenengoaren 1etik 22ra aurkeztu daitezke. Igaz hasi ziran Diman lehiaketa hau antolatuten. Lehiaketearen helburua, gazteen hizkuntza erabileran eta irakurzaletasunean eragitea da. Arratiako egile batek egindako lanik onenarentzat be saria dago. 12. orrialdea

DIMAKO
KALENTURAK

Areatzan dagoan Gorbeiaiko Parketxea barriztu dabe

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

234

2015eko abuztuaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org

Zeanuri eta Areatzako jaiak

Zeanurin Andra Mari jaiak eta Areatzan sanbartolomeak ospatuko dira hilaren erdialdean eta amaieran, hurrengo hurrengo. Herri bietan kalejirak ipiniko dabe jai giroa: Zeanurin txistulari eta trikitilariakaz eta Areatzan Erraldoi eta Buruhandiakaz.

Zeanurin, Zea Maysek kontzertua joko dau abuztuaren 14ko gaubean eta Areatzan Eskean Kristök hilaren 28an. Bertsozaleak zita bat daukie abuztuaren 16an Zeanurin eta beste bat 24an Areatzan. Balkoitik balkoira saioak izango dira herri bietan; Mañukorta eta Beñat Ugartetxea egongo dira Zeanurin, eta Arkaitz Estiballes, Jone Uria eta Maddalen Arzallus Areatzan.

Kuadrilen arteko jokoak edota Olinpiadak ez dira faltauko, ezta lehiaketa gastronomikoak, herri kirol erakustaldiak eta Play-back Lehiaketak. Zeanurin Zeani Antzerki Talde beteranoak emonaldia eskeiniko dau jaietako azken egunean eta Areatzan Astondoa Piroteknaren suakaz disfrutatuko aukerea dago hilaren 29an. 5. eta 7. orrialdeak



Abuztuaren 23an hasiko dira Areatzako jaiak.

ARRATIA

Haurreskola txikiak arriskuan

Haurreskolak Partzuergoko zuzendaritza batzordeak hartutako ebatziaren ondorioz, hainbat haurreskola txiki zarratuteko arriskuan dagozala salatu dau LAB sindikatuak. Lau ume dituen eskoletan ordutegia murriztu egingo da eta eskolea ezingo da zabaldu 7 ordu baino gehiago. Ebatzi honek eragin zuzena dauka Arratiako haurreskola txikietan. 6. orrialdea



ZEANURI

Undurragako urtegiaren by-passa

Undurragako presan 1.300 metro inguruko tunel bat egiten dagoz helburu bigaz: uraldi handiak gertatu ezker, ura aterateko kapazitatea handitutea eta urtegia zarratu behar izan ezker, Bilborako hornikuntzea bermatutea. Horretarako, tunelaz gainera, ura hartzeako eraikuntza eta presatxo urtegiaren atzekaldean, eta deskargako eraikuntza presearen behealdean egingo dabez. Lanok 2014an hasi ziran eta 2017an amaituko dira. Urtegiaren hegalean oinezkoentzako pasealeku bat egiteko negoziazioetan dabiz Ur Partzuergo eta Zeanuriko Udala. 8. eta 9. orrialdeak



ARRATIA

Mankomunidadean presidente barria

Miguel Angel Etxebarria, EAJ-PNVko Lemoako ordezkaria da Arratiako Udalen Mankomunidadeko presidentea, garagarriaren 29tik. Ordura arte Josune Gorospek izandako kargua hartu eban eta martxan dagozan proiektuak eta etorkizunekoak aurrera aterateko behar egiteko "gogotsu" dagoala esan eban presidente barriak. 2015-2019 legealdian Mankomunidadean, EAJ-PNVk 11 ordezkari izango ditu, EH Bilduk 8 eta Ubideko Arnasak 1. 5. orrialdea

Okindegia

+ Ke... PAN

Etxean bertan egindako pastelak

IGORRE
Lehendakari Agirre 11
94 656 65 52

IGORRE
Sabino Arana 35
94 657 3898

AREATZA
Goiko kalea 8
94 608 90 47

Areatzako jai zorientsuak opa deusueguz!! Ondo pasau!

ZEURE BERBEA

Herritarrak dinoelako

Bertan daukaguz herriko jaiak eta baten bat larri dabil aspaldian. Ederto baten joan leiteken ospakizuna maratu gura izateak, jentea ernegatu arazo beharrean, penatutea dakar. Jaiak herritarrenak dirala esaten dozunean, zer gara gu, alkatete jauna? Gu be zeanuriztarrak gara eta danok batera herriko jaiak plazan gozatu gura doguz, alkarregaz.

Halanda be, kurioa da ezer eskatu orduko debeku bat ipini izana; ez dakienarentzat, txosnearen gainean gabiz berbaz. Geroago berau ipinteko baimena emon jakun, baina jai eremutik kanpo, probalekuan. Alderdikeria albo batera itxita eta herriari be-

giratuta zeanuriztar askok ebatziagaz desadostasuna erakutsi eben orduan. Atzenean, txosnea plazan kokatuten itxi deuskue. Modua ez da bape zintzoa ezta dotorea izan ostera. Ez dogu mesede lez hartu, ebatzi zuzen eta bidezkoztat baino, hau izan dalako herritarren desioa. Txarrak eta onak desbardindutea obsesino bihurtu jatzuen honetan aktore barik geldituten zabizie, guk ez dogu eta holako pelikuletan parterik hartuko. Herritarrak batera herriak irabazi dau; eta honeek protagonista diran artean, kontau gugaz.

Hormeak ekarri deusku agora berbea eta sortu gura izan da hasarrea. Kasualidadea? Gora jai parte hartzaile askeak!

EH BILDU ZEANURI

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Lexar



Arbola orridun honen egurra sano estimadua izaten da. Lexar (lexarra, agoskatuta), leixar eta leizar berbak jaso doguz Arratia inguruan. Batuaz, lizar esaten da. Inoz entzun ezker Lejarreta, Lejarza (Lexartza), Lejarazu (Lexaratu) edo Lejarraga (Lexarra) moduko leku-izen eta abizenak, jakin irakurle, lotuta dagozala lexar arboleagaz. Lexarrak, gainera, badau bere tokia gure mito eta ohitura tradizioletan: sanjuanetan esate baterako, etxearen babeslea da, atondoan edo balkoian ipinita.

ERETXIA

Arratian trikitixea jotzen hamazortzi urtez



IKER ALLUR ARANBURU

Musikaria

Atzenengo hamazortzi urteotan Arratiako hainbat herri eta auzotan ibili izan naz hara ta hona trikitixea irakasten eta erakusten, baita inguruko jai eta erromeriak alaitzen eta bertan gozatuten be; horixe da-eta hartu neban ogibidea; aitari kontra eginez hartu be gainera, harek ez eban uste trikitixea jotetik personea bizi eitekenik eta.

Hareek beste sasoi batzuk baziran be, egia esan gaur egun zer pentsau apur bat emoten deusta aitari esan harek, batzuetan errazoi pitin bat baeukala be pentsetan dot eta. Aurrerago azalduko dot ordea honen zergaitia.

Urte luze honeetan hamaikatxo jente ezagutu dot Arratiako herrietan. Batzuk ikasleak, lankideak beste hainbat, kalean, auzoetan eta zelan ez Arratiako herri eta auzoetako jaietan ezetutako beste hainbat persona. Esan beharra daukat Arratiara heldu nintzanean eta gaur egun sano perspektiba desbardinetik begiratzen deusadala bertako giroari. Giroa asko aldatu da, eta giroa sortzeako errea, oindino gehiago.

Hasikera baten bailara honegaz neukan loturea Arratiko Musika Eskolako "trikitixako" klaseak emotera mugatzen bazan be, denporeagaz, eta aurrez aitatutako moduan, apurka herri eta auzoetako hainbat jai eta ospakizunetan parte hartu izan dot lagunak parrandan, ikasleak hainbat kalejiratan eta baita errazoi profesionalakaitik be, era batera ikasi neban hori gaur egunera moldatuaz.

Arratiara heldu nintzanean amets bat egia bihurtzen danean sortzean dauan irrika modukoa somatu neban nire barruan. Beti entzun izan neban etxean, txikitatik aita eta aitari esanda Arratiako soinu jotzaile, albokari, pandero jole eta bestetik herri txiki honeetako auzo eta herrietako jaien barri,

askotan aitatzen eusten eta.

Gaurkoan tokau jakun gaiari helduz, denporeagaz ikusi dot Arratiako herri eta auzoetako jaiak asko aldatu dirala. Hamazortzi urte honeetan nire ikuspuntutik auzo txikitako ospakizun xumeak barriz be indartzen dabizala somatzen dot, antxinako formator bueltatu dira asko behintzat: halabeharrez, edo akaso praktikotasunagaitik; eta herri haundiagokoetako jaiak parte hartzaileago ikusten dodaz, jente gehiagori iristen jakiezala pentsetan dot. Horretarako egitarau zabal eta anitzak egiten artistak dira-eta bailarako hainbat gazte eta heldu.

Goian aitatu dodanari jarraiki, hementxe dator nire kezka nagusia.

Jaiak, erromeriak, ospakizunak asko aldatu dira, bai, eta horretan gaur egungo gizarteak zerikusi

handia izango dau ziurrenik beste faktore askoren artean. Baina al-daketa horrek zer dakarren benetan konturatzen ete garan ez dakit nik.

Gaur egun trikitixea irakasten eta erakusten jarraitzen dot orain dala hamazortzi urte egiten neban moduan. Ikasle barriak datozenean askotan entzun izan dot: "umeak trikitixea ikisi deila, lagunak eta jaietan jotzeko polite da-ta...". Aldiz hainbestetan esaten dan hori ez da hain erreza praktikan ipinten errealdetan. Jaiak aldatu egin dira baina baita jaizale potentzialak be horregaz batera. Lehen artistak bere lana amaitzen ebanean jasoten eban saria (jentek egindako txalo, esker on eta abar.) Gaur egunean jasotea sano gatx egiten da. Eta oindino zailagoa da hori ikasleai azaltzea.

Honegaz esan gura dodana hau da: orain dala hamazortzi urte nahikoa zan trikitixea kalera atera eta hiruzpalau toketa jotzen jakitea, jentea jantzen eta kantuan ipinteko, zeozelan esateko horrek funtzionau egiten eban eta jai montautu egoan. Aldiz, gaur egunean jaiak eta erromeriak alaitzen saiatzen garanok ezin gara horretara mugatu; horregaz iada ez dogu jentean arreta geureganatzen. Inoz entzun izan dot "badatoz betikoak... betikoa jotzen..." eta hori entzutean aitari esana etorten jata burura: "trikitixea jotetik ez dago biziterik...". Hainbestetan esaten eban hura agian ez egoan guztiz desegoki azalduta. Jaietan jentea norberegantzeko trikitixea jo baino askoz gehiago egin behar da gaur egunean. Eta horretan saiatzen gara!

Arratiako herrietako jaietan hainbat ekintza, funtzino, kontzertu, erromeri eta abar antolatzen dira. Oso jai aberatsak eta emonkorak dirala esango neuke. Aitatu dot lehen be antxinako formator bueltetan gabizala beste kasu batzuetan, eta hori be ez da txarra. Jaiak, etenbarik aldatzen dihardue eta hori ona dala uste dot; baina jaiaren parte garanok be honetaz jabetu beharko geunke gure lanak frutu on-onak emoten segidu dagien.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkargatzen
Batzen jaiak

MONDRAGON

LUMATUTEN



RAFA UGALDE

Zer ete da,
hotza ala lotsa?

Dimako Udalak eta udal liburategian dabizan lantaldeko lagunak Dimako Kalenturak II. Ipuin Erotikoen Lehiaketea antolatu dabe. Igaz antolatu zan lehenengoz. Basauriko Euskarabila alkarreak antolatu eban urteetan, eta horren emoitzea Txalaparta argitaletxeak argitaratu izan dau Literotura sailean. Basaurikoak itxi egin eutsien antolatzeari, eta Dimak hartu eban lekukoa igaz.

Parte-hartzea alde guztietatik aldarrikatzen dogun sasoiari bizi gara, baina horixe da atzen urteotan lehiaketearen ajea. Idazle gitxi, eta aurkeztu izan diran gehienak neskak —antzanez, Literotura sailaren irakurle ohikoenak be neska gazteak dira—. Gainera, igazko lehiaketan saria egoan arratiar onenarentzat, eta arratiarrik aurkeztu be ez: ez gizezkorik, ez andrazkorik.

Euskaldunok ez gara latinoak;

beraz, latin lover-ak ezin izan. Baina ba ete daukagu erotismorik barruan? Ba ete daukagu sexurik buruan? Bigarren galdera honen erantzuna badakit, ondo jakin be: sexua beti daukagu buruan, danok, gizezko zein andrazko, euskaldun zein erdaldun; psikologia arloan hainbat ikerketa egin dira-eta horren inguruan, eta emoitzea beti bera: sexua etenbarik daukagu gogoan, esan dodan moduan danok, gizezko zein andrazkoak.

Arratiarrok, baina, desbardinak ete gara? Erotismo kontuak ahaztuta ete daukaguz eta gure sexu grina ugaltze-sen hutsa ete da, ba; hau da, hotzak gara? Ala erraietako txoko sakonen baten gorde dogu, inork ikusi ez dagian geuk be alkarrerri eperdira begiratu deutsagula —gizezko zein andrazkoak— eta berotu egiten garala; hau da, lotsa?

Nik neuk lotsaren aldeko apustua egiten dot. Bildur gara jenteak ikusiko ete dauan barruan zer gordetan dogun. Lotsa, zikintzat hartuko ete gaituen. Ba itxi daiguzan lotsak auzoan, eta ausartu gaitzean ipuin erotikoen lehiaketan parte hartzera. Animo! Eta idatzi egizuz zure grinak, ametsak eta fantasiak —edo inorenak— eta bialdu egizuz Dimako Kalenturata.

ZERTZEAN

BEGITU



BEGI TXINDORRA

“Bargondiko piszinak” izeneko argazkia izan da aurten BEGITUko Argazki Lehiaketan parte hartzeako heldu jakun lehenengoa. Jabi Lamadridek bialdu dau, Diman aterata. Argazkiak gainera Lamadridek, herrian edo auzunean piszinarik egon ezean, plisti-plasta egin ahal izateko idea bat konpartidu gura izan dau BEGITUren irakurleakaz. Argazkiko piszinea mobigarria da gainera!

Argazki Lehiaketearen irabazleak astegoiena landetxe baten izango dau saritzat. Parte hartzeako 2015eko oporretako argazkiak bialdu behar dira begitu@topagunea.com helbidera, argazkiaren titulua eta nor, non eta noz atera dauan esanez. Egile bakotzak gehienez hiru argazki bialdu ahal ditu. Zuen argazkien zain gagoz! Zorte on!



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odotzargoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulu 100
R.P.S. 21/06

OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LENDAKA (Bizkaia)
Tels. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

24h Egunkari Ogiak

EGUNEKO OGIA
vending pan

IGORRE
Lehendakari Agurte

ZEANURI

Zea Maysen kontzertua Andra Mari egunaren bezperan



Zeanuriztarrak soka-saltoan igazko jaietan.

Argazkia: Miren Idigoras.

Erredakzinoa

Txistulari eta trikitilariakaz batera herriko hiru zubiak pasauz hasi eta amaituko dira Zeanuri herriko jaiak. Jai egunai hasikerea emoteko goi-zero kalejirea egingo dabe herriko txistulari eta trikitilariak eta Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketea be izango da domekan, hilak 16.

Beste musika estilo batzuk be izango dabe lekua jaietan, eta holan aitatu behar da Zea Maysen kontzertua. Egun horretan egongo da Arratiako herrietara bueltetako autobusa 02:30ean eta 04:30ean.

Abuztuak 14, barikua

14:00etan, txupinazoa eta hiru zubiak herriko txistulari eta trikitilariakaz.
15:00etan, herri bazkaria.
17:00etan, esku pelotako jaialdia.
18:00etan, kuadrilen arteko bertsoak eta Rally poteoa.
20:00etan, Salbea.
23:00etan, Zea Maysen kontzertua eta Ingo al deu taldeagaz erromeria.

Abuztuak 15, zapatua

11:00etan, kalejirea herriko txistulari eta trikitilariakaz.
11:00etan, umeentzako parkea plazan.
11:30ean, mezea.
12:30ean, kantu-txistu-triki poteoa.
18:00etan, esku pelota partiduak. Afizionauak.
22:00etan, Play-back Lehiaketea.
24:00etan, Joselu Anaiak taldeagaz erromeria.

Abuztuak 16, domeka,

11:00etan, kalejirea herriko txistulari eta trikitilariakaz.
11:30ean, arimen mezea.
12:00etan, binakako lasterketea eta umeen lasterketea.
12:30ean, herriko jubiladuentzako kopaua.
13:00etan, Bertso saioa. Balkoitik balkoira: Mañukorta eta Beñat Ugartetxea.
13:30ean, Aitamen Eguna: herriko txistulari taldea.
18:00etan, Euskadiko Trikitilari Gaz-

teen XXXV. Txapelketea.

20:00etan, umeentzako jolasak, herri kirolak, ur jolasak...
22:00etan, Etzanderak herriko jan-tza taldearen ekitaldia.
Jarraian erromeria Jokaldi taldeagaz.

Abuztutak 17, astelehena Sukaldarien Eguna

11:00etan, kalejirea herriko txistulari eta trikitilariakaz.
11:00etan, Sukaldari Lehiaketearen hasikerea.
14:30ean, bazkaria plazan.
16:30ean, II. Mus Txapelketea.
18:30ean, kuadrilen arteko jokoak eta mozorroak.
20:00etatik **21:30**era, Lotxo taldeagaz erromeria.
22:00etan, "Zeani" antzerki taldearen emonaldia, *37 bentanea 38 pasilloa* antzezlan.
23:30etik **00:30**era Lotxo taldeagaz erromeria eta txokolata danontzat.
Jaiari amaierara emoteko hiru zubiak herriko txistulari eta trikitilariakaz.

ARRATIA

Miguel Angel Etxebarria Arratiako Udalen Mankomunidadeko presidente barria



Mankomunidadeko presidentea aukeratzeko botoak zenbatzen.

Erredakzinoa

Garagarriaren 29an, mankomunidadeko presidentea aldatu zan eta Miguel Angel Etxebarria Lemoako ordezkari jeltzaleak hartu eban ordura arte Josune Gorospek izandako kargua. Presidente aukeratzeko bozketan, Etxebarriak, EAJ-PNVren hautagaiak, 11 boto lortu ebazan, eta Itxaso Bengoetxeak, EH Bildukoak, 9 boto.

Presidente barriak "orain arte martxan jarritako proiektuak eta etorkizunean etorriko diran beste asko aurrera aterateko gogotsu" egingo daukela behar esan eban, Mankomunidadea osotuten daben udalerrri eta herritar guztientzat, egin be.

EAJ-PNVk ordezkari gehiago

Mankomunidadea 9 herrik osotuten dabe eta horreetako bitan bakarrik dauka EAJ-PNVk alkatezteza, baina estatutuak Mankomunidadea D'Hondt legearen arabera eratuko dala ezartzen dabe eta honek EAJ-PNVri emon deutso gehiengo. Izan be, herri bakoitxak mila biztanleko ordezkari bat dauka mankomunidadean eta boto gehien daukan partidua da lehena ordezkaria aukeraturen. Boto kopuru bardina egon ezkerro –maiatzaren 24ko hauteskundeetan Arantzazun gertatu zan legez– zozketearen bidez ebazten da zein izango dan lehena ordezkariak aukeraturen. Holan, Arteako ordezkaria EAJ-PNVkoa da, horixe izan zalako maiatzaren 24ko hauteskundeetan Artean boto gehien lortu eban partidua,

eta Arantzazuk ordezkari jeltzalea izango ebala txanpon batek ebatzi eban. Hauteskundeetan, 132na boto izan eben Arantzazun EAJ-PNVk eta EH Bilduk eta alkatezteza EH Bilduri airera jaurtitako txanpon batek emon eutsan.

Mankomunidade eratu barrian EAJ-PNVk hamaika ordezkari ditu (Arantzazu, Areatza, Artea, Dima eta Zeanuriko ordezkari bana eta Bedia, Igorre eta Lemoako bina), EH Bilduk zortzi (Areatza, Dima eta Zeanuriko bana; Lemoako bi eta Igorreko hiru) eta Ubideko Arnasak ordezkari bat.

Gobernu organo eta informazino batzordeak urrietan eratuکو dira.

Estatutuak

Maiatzaren 24ko hauteskundeetan, arratiarrak EH Bilduri emon eutsela boto gehien ekarri eban gogora Saioa Elejabarrieta EH Bildukoak. "Mankomunidade honetako ezaugarria da bere izakera antidemokratikoa" kritikau eban. Mankomunidadea demokratizetako pausoak emongo daukela EH Bilduk esan eta erakundearen birplanteamentu sakona, araudia aldatu beharra eta zerbitzuen gaineko hausnarketea eskatu eban.

EAJ-PNVko Alberto Etxebarriak erantzun eutsan Elejabarrietari EH Bilduren jokaerea kritikatu. "Mankomunidadeko estatutuak dagozanak dira eta bete egin behar dira. EH Bilduk ez dauka ezelangoz arazorik onartzeko legeak esaten dauana aldekoa dauanean" baina arazo gehiago dituala holan ez danean, esan eban.

Zeanuri

Jai batzordeak eta Zeanuriko Udalak

Gora Andra Mariak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre

Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1, Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

ARRATIA

Arratiako herri guztietan egongo da Lanbideren unidate mobikorra**Erredakzioa**

Eskualdeko herri guztietara joango da Lanbideren Unidate Mobikorra, administrazioak daukazan zerbitzuen barri emoteko. Bulego mobikorrak, Enplegu Zentroa, arreta individualizadua, informazioa, orientazioa eta eskeintzen bilaketara eskeintzen dauz.

Zerbitzu hau Araban erabili eben

esperientzia pilotu moduan eta Arratiako Udalen Mankomunidadeak Lanbideri eskatu eutsan baloretako bulego ibiltariaren formula; izan be, Arratiak 14.000 biztanle daukaz eta Durangoko bulegoa 20 km. baino gehiagoko distantziara dago herri batzuetatik.

Garagarriaren atzen astean hasi eban unidateak Arratian zeharreko bere ibilbidea.



Lanbideren unidate mobikorra.

ARRATIA

Haurreskola txikiak defendiduteko agerraldia egin dabe hezitzaileak**Erredakzioa**

Haurreskolak Partzuergoko zuzendaritza batzordeak hartutako ebatziaren ondorioz, hainbat haurreskola txiki zarratutako arriskuan dagozala salatu dau LAB sindikatuak. Izan be, ebatzi honen arabera, gitxienez hiru ume egon behar dira matrikulata haur eskolea zabalik mantenduteko. Lau ume dituen eskoletan ordutegia murriztu egingo da eta eskolea ezingo da zabaldu 7 ordu baino gehiago. Ebatzi honek eragin zuzena dauka Artea eta Dimako haurreskoletan, berbarako.

Luzera begira kaltea haurreskola guztientzako izango dala uste dabe Dimako Haurreskolako hezitzaileak. Horregaitik, garagarriaren 9an, Gasteizko parlamentuaren aurrean konzentrazioa egin eben, "Haurreskola txikiak defenda ditzagun" lelopean. Agerraldiaren ostean, Eusko Jaurlaritzaren erantzunik ez dabela jaso dinoe Dimako Haurreskolakoak eta herri bakotxa

saiatzen dala egoereari urtenbidea emoten.

Egoereak okerrera

"Partzuergoa sortu zanetik haurreskola txikien egoereak urtez urte okerrera egin dau eta urtez urte haur eskola honeek zabalik mantenduteko erispidea aldatu egin da, hainbat kasutan euren

biziraupena kolokan ipiniz" dinoe LAB sindikatutik. Gainera, eskola guztietan kuota bardinak pagau arren, ez dabe zerbitzu bardina jasoten, ordu kopurua murriztuta daukielako hainbat haurreskolek. Izan be, gehienez zazpi ordu egon behar dira zabalik eta horrek esan gura dau, gurasoak adostu behar dabela ordutegia. "Inork ez dau umeak zazpi ordu baino gehiago bialtzen haurreskolara, baina ordu desbardinetan bialtzen dabez gurasoak umeak. Datorren ikasturtean haurreskola txiki batzuek ezin izango dabe ordutegi zabala eskeini eta gurasoak adostu beharko dabez orduak" azaldu deutso BEGITURI Garbiñe Uriarte hezitzaileak.



Dimako haurreskolea.

LEMOA

Udalak mobikorreterako sortutako aplikazioak urtebete egin dau**Erredakzioa**

2014ko garagarriean Lemoako Udalak sortutako mobikorreterako aplikazioak urtea betetakoan udalak egindako balorazioa oso positiboa da. "Udala eta herritarren arteko komunikazioa zuzenagoa izan da eta era berean, komunikazio eta erantzuteko denporak murriztu egin dira, udal lana eraginkortuz" baloratu dabe.

Aplikazioak lehenengo urte honetan udal izakerea daukien akatsak, arazoak edo beharrak transmitidutako iradokizunak, kejak eta eskaerak egiteko aukerea emon dau eta hurrengo hilabeteetan Lemoako Udalak aplikazioaren aukerak zabaldu gura ditu.

Android eta IOS

Aplikazioa Android eta IOS sistemetako dendetan dago eskuragarri,

gutziz deabaldekoea da eta euskeraz eta gaztelerez instalatu daiteke, beti

be norberak mobikorra konfiguratu daukan hizkuntzearen arabera.



ARTEA

Argiteria sistema barriztu dau Arteako parrokiak**Erredakzioa**

San Inazio egunean argi barriak estreinau ebazan Arteako Eleizeak kanpoan eta barruan. Guztiz 18 luminaria aldatu dira, argitasun hobea eta aurrezte energetikoa lortzeako asmotan.

Kanpoan hiru foko ipini dira; beste hamabost luminaria, barruan. "Kanpokaldean, neguan batez be, eleiz ataria oso ilun agertzen zan herri argiteriak ez daualako leku hau argitzen. Hori dala-eta, kanpoan 3 foko barri jarri dira, lehengo zahar bakarra kenduz" azaldu deutse BEGITURI Arratiako eleizako iturriak.

Barrukaldean, barriz, halogenuro metalikodun luminaria zaharrak LED lanpara barridunakaz ordezkatu dira, eleizearen erdiko nabean, erdikoan, absidean, altarean eta kruzeroan.

Beharraren kostua parrokiak ordaindu dau eleiztarren laguntzaz.

Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua begitu@topagunea.com helbidera neurria adierazoz



ARRATIA

Auzoetako jaiak

Erredakzioa



Igorreko Udako Jaiak.

Dimako Artaun auzuneko San Bixente jaiak, Zeberioko San Adrian Argiñao auzunean eta Zeanuriko Otzerinmendiko sanjustoak dira oraingo hileko lehenengo jaiak. San Justo karobia egon zan ketan hilaren 1ean eta hurrengo egunean, Paella Txapelketea eta bolea egon zan ermita inguruan. Artaunen be San Bixente jaiak ospatuten dabez fetxa horreetan. Zapatuan gau jantza eta domekan herri kirolak egon ziran eta oraingo astelehenean txapelketa ugari dagoz.

Hilaren 10ean, San Lorentzo jaiak edo sanlontxoak, Bediako Murtatzen, Lemoako Azurrekan eta Zeberioko Elizondon ospatuko dabez. Andramariak datoz gero eta Zeanuriko herriko jaiak izateaz gainera, Igorren, "Udako Jaia" ize-nagaz eta Zeberioan be ospatuten dabez andramariak. Hurrengo eguna, San Roke, jai eguna da leku askotan: Dimako Olazabalen eta Bediako Eroso-Ugarten, berbarako. Bediako San Roke ermitan be, 12:00etako mezearen ostean, barauskarria, trikitixea eta jantzak egongo dira.

Hilaren amaierako sanbartolomeak Igorreko Urkizun eta Zeberioko Urizarren ospatuten dira.

Azurreka (Lemoa)
Abuztuak 10, astelehena

12:00etan, mezea.
13:00etan, kopaua txistulariakaz.
18:00etan, umeentzako jolasak.
19:00etan, Igel Txapelketea.
20:00etan, karretila entrenamenua.
20:30ean, Karretila Txapelketea.

Murtatza (Bedia)
Abuztuak 10, astelehena

12:00etan, mezea Murtatzen, barauskarria eta trikitixea eta Mus Txapelketea.
17:00etan, Briska Txapelketea (bikoteko bat gitxienez herrikoa).

Igorreko Udako Jaia
Abuztuak 15, zapatua

10:30ean, XXVII. Andra Mari Saria, Gazte Mailako txirindulari lasterketea.
12:30ean, mezea.
13:15ean, barauskarria Goiko Plazan.
17:15ean, Briska, Mus eta Tute Txapelketak Beheko Plazan. Izen emotea 16:00etatik 16:15era.
18:00etan, Igel Txapelketea Beheko Plazan. Izen emotea 17:30etik aurrera.
19:00etan, erromeria. Sangria eta txokolataa danontzat.

Futbola. XXIX. Andra Mari Saria
Abuztuak 14, 18:00etan, Arratia-Durangoko Kulturala. Abuztuak 15, 18:00etan, Bermeo-Santurtzi. Abuztuak 16, 18:00etan, finala.

Olazabal (Dima)
Abuztuak 15, zapatua
12:30ean, Txakoli Eguna.

Abuztuak 16, domekea
12:00etan, meza nagusia.
13:30ean, Bola Txapelketea.
17:00etan, umeentzako jolasak.
18:00etan, pailazoak.
19:30ean, umeentzako baloiak eta txokolataa.
20:00etan zozketea.

Abuztuak 17, astelehena
12:00etan, mezea.
14:00etan, auzo bazkaria eta ostean trikitixea.

AREATZA

Erraldoi eta Buruhandiak kaleetan zehar jaietan

Erredakzioa

Zortzi eguneko jai egitaraua antolatu dau Areatzako Jai Batzordeak herriko jaiak ospatuteko. Danontzat moduko jaiak; ume, heldu zein adinekoentzako ekintzak dagoz eta. Kalejirak, lehiaketak, suak, Erraldoi eta Buruhandiak... hartuko dabez Areatzako kaleak. Baina batez be musikeak: txistulariak, Areatzako Banda, gaiteruak, batukadea, tanborra, erromeria, kontzertuak, Play-back... Estilo guztietako musikea entzun edota jantzen egiteko aukerea izango da.

Areatza herri parte hartzailea dala eta Jai Batzordeak herritarrek, betiko lez, jaietan parte hartzera animetan dabez. Horrezaz gainera, "errespetuzko jai parekideak gura doguz, ezelango bereizketarik egin barik sexu errazoiakaitik, arrazeagaitik edo erlijinoagaitik, eta herriko baliabideak zainduz" eta horretan inpliketako eskatzen deutez herritarrai.

Arratiako beste herrietara bueltetako autobusa bariku gauean izango da 02:30ean eta 04:30ean. Gau horretan Pedra, Eskean Kristö eta Disk Breakeren emonaldiak egongo dira.

Abuztuak 23, domekea
14:00etan, txupinazoa. Areatzako Erraldoi eta Buruhandiak, Areatzako Txistulariak, Areatzako Banda eta Bizkaiko Gaiteroak.
17:30ean, Olinpiadak. Lehenengo proba. Hagina tabernako aldatsean.
18:00etan, batukada taldea.
20:00etan, Salbe herrikoa. Jarraian Hilarion Eslavaren "Salve Regina". Areatza eta beste herrietako lagun taldea.
23:30ean, XXII. Play-back Lehiaketea. Ondoren erromeria Honat taldeagaz.

Abuztuak 24, astelehena
06:00etan, mortero jaurtiketea.
11:00etan, txistu, tronpeta eta tanborren kalejire. Erraldoi eta Buruhandiak.
11:30ean, meza nagusia.
12:15ean, txistu, tronpeta eta tanborren kalejire.
13:00etan, Bertsolariak Balkoitik Balkoira. Arkaitz Estiballes, Jone Uria eta Maddalen Arzallus.
14:00etan, poteo musikatua.
18:00etan, eskupelota partiduak. Jarraian Motxo tabernak antolatuta, Pernilaren Proba Esku Pilota Elkarteari lagunduteko.
22:00etan, kontzertua, Musbika Flamenko Jazz. Zubizarra plaza-

txoan.
23:30ean, LEG-OH DJagaz festa.
02:30ean, presoen eskubideen aldeko txokolatadea.

Abuztuak 25, martitzena
11:00etan, arimen aldeko mezea. Jarraian mariatiak.
13:00etan, Paella Txapelketea (aurkezpena).
13:30ean, 3. adinekoentzako kopautxo.
16:00etan, Briska Txapelketea Uparan Jubilatuta Elkarteak antolatuta.
17:30ean, txitxarriola.
19:30ean, Olinpiadak. Bigarren proba. Eleiza parean.
20:00etan, txokolata txurroakaz jubiladuentzat.
22:30ean, Gaztetxean kontzertuak.

Abuztuak 26, eguaztena
11:00etan, Altxorraren Bila. Umeentzat.
13:00etan, Olinpiadak. Hirugarren proba. Parkean.
13:00etan, umeen bazkaria.
16:00etan, xakea.
19:30ean, Malas Compañías Zirko Taldeak *Txatarra* antzezlan. Parkean.
20:30ean Buruhandi eta Erraldioen kalejire.
23:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua.
00:00etan, Motxo tabernak kontzertua.

Abuztuak 27, eguena
12:00etan, herri kirolak. Jarraian umeen erakustaldia.
16:00etan, Mus Txapelketea Batzokian.
17:00etan, bizikleta paseoa Peña Iturrimorro Euskadigaz.
20:30ean, Tortilla Lehiaketea. Tortillen aurkezpena. Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak an-

tolatuta.
21:30ean, afari herrikoa.
23:00etan, DJ MAR-ISK-AL. Birtartean Olinpiadetako laugarren proba.

Abuztuak 28, barikua
11:00etan, umeentzako tailerrak.
13:30ean, Makailao Lehiaketea. Kazuelen aurkezpena.
18:00etan, pala partiduak.
20:00etan, poteo rock Orkestra taldeagaz.
Haginaren parean Olinpiadetako bosgarren proba.
22:30ean, kontzertuak. Pedra (Estremodurori tributoa) eta Eskean Kristö. Jarraian Disk Breakers.

Abuztuak 29, zapatua
12:00etan, umeen jantza taldearen kalejire.
12:30ean, umeen jantzak plazan. Jarraian kopautxo umeentzako.
18:00etan, Danborrada Txikiren kalejire.
22:30ean, kuadrilen kalejire eta suak. Areatzako Kuadrilak, Areatzako Danborrada, Gauerdia Txaranga, Astondoa Piroteknia.
00:00etan, erromeria Akerbeltz taldeagaz.
02:00etan, Areatzako Danborradaren kalejire.

Abuztuak 30, domekea
13:00etan, kantu jira. Areatzako Kantuzaleok eta Urdaibaiko Folk Taldea.
13:30ean, Pintxo Lehiaketea Areatzako Tabernari Elkarteak antolatuta.
17:00etan, Tute Txapelketea Motxo tabernan.
18:00etan, Umeen Play-back Lehiaketea.
19:00etan, Zunbatoia.
23:00etan, Jaiak agurra, azken txupina eta kalejire.



Areatzako plaza igazko jaietan.

Areatzako Udalak
jai zorientsuak opa deutsuez

Ondo pasau jaietan!

UNDURRAGAKO BY-PASSA

Ura desbideratzeko tunela Undurragako presan

Helburu bi daukaz Zeanuriko Undurragako presan egiten dabizen tunelak. Alde batetik, uraldi handia gertatu ezker, ura aterateko kapazitatea handitutea; bestetik, urtegia zarratu behar izan ezker, Bilborako hornikuntzea bermatutea. Beharrok Ferrovial Agroman S.A. egiten dauz Ur Partzuergoaren zuzendaritzapean, eta 9,5 milioe euroko aurrekontua daukie. Diru honen % 65 tunelaren kostua da. 2017ko martia aldera lanak amaituta egongo dirala aurreikusten dau Ur Partzuergoak, eta orduan urtegiro hegalean oinezkoai bide bat zabaltzeko negoziazioetan dagoz Partzuergoa eta Zeanuriko Udala.



Erredakzioa

Urtegiro ezker aldean dago tunela. 1.300 m. inguru izango

ditu eta urtegiaren atzekaldea (hegoaldean), eta urtegiro beste muturreko behelaldea (iparrean) konektatuko ditu. Tunela 4m x

4mkoa da eta modu austriarra erabiliz, hau da, leherketak egi-

nez, egingo dabe. Atzekaldean, ura hartzeako eraikuntza eta ura desbideratzeko presatxoak egongo dira; aurrealdean barriz, presearen behelaldean, deskarga eraikuntza.

"Undurragako urtegiaren uraldi handiko kota 213,75ekoa da eta kota horregaz 205 m³/s aterateko gaitasuna dauka urtegiak. Obra honeguz, kota horretarako, ura aterateko kapazitatea handiagoa izango dau, 70 m³/s.ko gehiago" azaldu deutso BEGITURI Ur Partzuergoko Undurragako By-passaren obreak arduraduna

dan Cristina Gortazarrek.

Lanak 2014ko urrietan hasi ziran eta tunela egiten 2015eko martian. Alde bietatik ekingo deusie tunelari: 700 metro pre-searen behelaldetik hasita, eta beste 700 metro atzekaldetik hasita. "Tunela txikia da eta lekurik ez dagoenez kamioi bi batera ibilteko, deseskonbro lanak asko luzatu daitezke. Mutur bietatik ekitean dirua eta denporea aurrezten da".

Tunela amaitutakoan beste laupabost hilabete behar izango dira urtegiaren atzekaldeko ura hartzeako eraikuntza eta presatxoak, eta presearen behelaldeko deskargako eraikuntza egiteko.

Uraldi handiak eta Bilborako hornikuntzea

Ura hartzeako eraikuntzan, uraldi handietako urak eta hornikuntzarakoak bereiztu eta hodi bitatik egingo dabe euren bidea tunelean zehar. "Imajinau euria hasten dala eta urtegiaren ura asko igoten dala. Orduan 212,5 kotara ailegetan danean, presek daukazan ura aterateko organo guztiak ura ateraten dabe, eta by-pass tune-lera be bideratuko dabe ura. Ura tunelean sartzeko hiru konporta dagoz. Hiru zulo dira paretean eta urak 212,5etik gora egiten dauanean, hortik aterako da" azaldu dau Gortazarrek.

Uraldi handiak dagozanean uriolak ebiteaz gainera, tunelak konektatuko dau Arratia erreka Benta Altara ura eroateko presa ostean dagoan hoditeriagaz. Holan, urtegia zarratu egin behar izan ezker, garbiketa, mantentmentu edo istripuren baten ondorioz, berbarako, Bilborako ur hornikuntza bermatuta egongo litzateke. Horretarako, desbi-



Benta Altara ura eroaten dauan hoditeria.



Tunela egiten martian hasi ziran.

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com


Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

Kili-Kili
Lanekoa
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

INMOBILIARIA
Tfnoa: 94 631 80 04

Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com



Undurragako planoak.

deratzeko presatxo dago. Hau hormigoizko egitura bat da, non ate batzuk urari sartzean itxi ez, eta ur emari guztia tunelera bideratzen dauan. "Hornikuntzarako uraren atalasea 208,50ean dago. Holan ez da egon behar uraldi handi baten zain ur hornikuntzea bermatzeko. Esandako moduan, hau martxan ipiniko da urari urtegarako pasoa zarratutakoan ohiz kanpoko erazoi batengaitik. 5 m³/segunduko desbideratu leitezkez holan, hemendik Bilborako hornikuntzarako bialdu behar dana, hain zuzen be".

Geologiaren baldintzapean

Hasikera baten urtegiaren beste aldean egitea pentsau ebela, baina estratifikazioak traba lar ipinten ebazala dino Eneko Goikoetxea SGS Aholkularitza enpresako geologoak eta horregaitik ekin eutsien beharri ezker aldetik.

Undurragako urtegiako lurra, granu fineko arroka sedimentarioak osotuten dabe, lutitak eta hareharriak, hain zuzen be. Lutitak ikatzaren antzekoak dira eta uragaz errez desegiten dira lokatz handiak sortuz. Tunela egiteko ura erabili behar da eta ur hori errekarara bueltatu baino lehen, dekantzino-tangetatik pasatu behar da lokatza kentzeako, eta kloroa bota behar jako PHa 5,5 eta 9,5 artean egon daiten.

Zebra-muskulua eta bisoia

Erreka inguruko lanak dira honeek eta zebra-muskulua ez zabaltzeko eta bisoi europarraren habitata ahalbideratzeko kontu handiz ibili behar da. Izan be, BFAko Ingurumen Sailak ez dau obrak egiteko baimenik emoten, neurri batzuk ipini ezean.

Zebra-muskulua (*Dreissena poly-*

lymorpha) Europa ekialdeko muskulua da eta espezie inbaditzailetzat jotzen da. BFAk neurriak hartu ditu inbasioa geratu arazo asmoz.

Arratia errekan zebra-muskuluen koloniak ikusi daitezke, baina zebra-muskulua ur masa naturaletatik kentzea ezinezkoa da behin finkatu danean. BFAk hartutako neurriak, beraz, bere hedapena eta kalteak murriztera bideratuten dira. Horregaitik, larba mikroskopikoak beste inon sartzea ebiteko, obra honetan erabilten dabezan kamioi eta makinaria guztia desinfektetan dabe.

Eta zebra-muskuluen kasuan ugaritzea bada oztopatu behar dana, bisoi europarraren kasuan (*Mustela lutreola*) kontrakoa: Europar desagertzeko arriskurik handienetakoa dau animalia honek eta bere habitata mantenduteko dira BFAk hartzean dituan neurriak.

Arratia errekan, Lemoa inguruan, bisoi bat ikusi ebela dino Eneko Goikoetxea SGSko geologoak, baina ezin izan eban ikusi bisoi europarra ala honen arerio dan bisoi amerikarra ete zan.

Uraldi handiak dagozanean uriolak ebiteaz gainera, tunelak konektatuko dau Arratia errekea Benta Altara ura eroateko presa ostean dagoan hoditeriaz



Eneko Goikoetxea geologoa, Enrique de las Cuevas Ferrovial Agromaneko obra arduraduna eta Cristina Gortazar Ur Partzuergoko obra arduraduna.

Oinezkoentzako ibilbidea

Ur Partzuergo eta Zeanuriko Udala negoziatzen dagoz urtegiako hegalean oinezkoentzat bide bat zabalduteko. Partzuergoak mantenturako dagoan bidexkea zabaltzea proposatzen dabe. Bide hori igaz egin eben Ortuzarreko deposi-

tutik Beretxikortara hoditeria sartzeko eta sano bide polita dala dino Gortazarrek. Akordio batera heldu ezker, "bidexka hori oinezkoai zabaltzeko eta, bidexkeagaz lotuteko, kaminotik presa bururainoko bidea be egiteko asmoa daukagu" dino Cristina Gortazarrek.

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48040 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Baimenak: A1, A, BTT, B
Lehendakari Agirre 31
Telefono: 94 675 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@telefonet.net

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n. 48550 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 090 481 830 eta 090 200 717

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23. behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Dia % PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober w 630 743 543
48.140 Igorre Manuel w 661 848 793

ARKEITEGI GAY & LORA
IGORRE

SESOREAK basolo Emaldi
Abokatuak
620. 57.86.04
asierabasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

HERRI KIROLAK

Herri kirolak plazaz plaza

Erredakzioa

Jaiak dirala eta, hainbat herri kirol txapelketa eta erakustaldi jokatzeko dira sasoi honetan. Hori dala eta, Arratiako herri kirolariak plazaz plaza dabilz uda osoan eta Bilboko Aste Nagusian hainbat hitzordu daukie Arratiakoak. Hitzordu guztiak Bilboko Areatzan (Arenala) dira eguerdiko 12:00etan.

Lehenengo egunean, abuztuaren 27an, Urrezko Aizkora eskuartzeko sailkatze legea izango da eta han ibiliko da Aitzol Atutxa dimoztarra Rekondo azkolari nafarraren kontrako lehian.

Hurrengo egunean, Andra Probak. Zeanuriko kuadrilea -Zeaniko Andra Proba Taldea- Astigarragako kuadrileagaz neurtuko da orduan. Hilaren 29an, zapatuz, barriro be azkorea, andrazkoetan oraingoan. Egun horretan Zeanuriko Irati Astondoak eta Zizurkilgo Alatzne Etxaburuak egingo dabe erakustaldia Bilboko Arenalean.

Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea

Lastoagaz lotutako kirolak be udako ikuskizunak dira. Holan, Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea Algortan izango da abuztuaren 14an. Han, kirol honetan hainbeste txapel lortu dituan Jose Martin Bustintza "Tubi" dimoztarra izango da. Tubik Gipuzkoa ordezkatzeko hartuko da parte txapelketa honetan.



FUTBOLA

Andra Mari torneo a Igorren

Erredakzioa

Andra Mari jaien inguruan, Igoerreko Urbieta futbol zelaian, XXIX. Andra Mari Saria jokatuko da, Arratia futbol taldeak antolatuta.

Lehenengo partidua abuztuaren 14an izango da eta etxeoak Cultural de Durangoren kontra neurtuko dira. Hurrengo egunean, Andra Mari egunean, Bermeok eta Santurtzik jokatuko dabe finalerako pasea. Finala hurrengo egunean izango da, hilaren 16an eta aurreko partiduetako irabazleak jokatuko dabe. Partidu guztiak 18:00etan jokatuko dira.

Amorebieta aurten ez torneoan

Aurtengo nobedadea da 28 urte honeetan torneoa jokatuko da eta igazko txapeliduna dan Amorebieta futbol taldea ez dala egongo. Penaz hartu dabe barria antolatzailerak, eta seguru asko, torneoaren jarraitzaileak be bai.

TXIRRINDULARITZEA

Oskar Garro Paracycling Bizkaiko Birako podiumean

Erredakzioa

Garagarilaren 18 eta 19an jokatuko ziran txirrindularitza egokitutako Bizkaiko Bira, nazinoarteko UCko proba izan zan. Hamaika herrialde-tako ehun ziklistatik gora neurtu ziran kategoria eta profil desbardinetan. Tartearen, Igoerreko Oskar Garro. Igoerrekoak 3 lasterketatan hartu eban parte eta hiruretan hirugarren egin eban.

Lehenengo lasterketea zapatuan

izan zan. Lau kilometrotako krono-ekaladea izan zan Kobetas mendira eta hirugarren postua lortu eban Garro bere kategorian. Arrastian be hirugarrena egin eban bere kategorian 56 km.ko errepideko lasterketan.

Hurrengo egunean, Mungian 20 km.ko erlojuz kontrako lasterketan 22garren egin eban eta bere kategorio-ko laugarren, baina azkenean hirugarren postua mantendu eban "asko sufridu" ondoren eta Bizkaiko Birako podiumera igon zan.



www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
 Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
 Amorebieta-Lemoa bidea
 Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
 48330 Lemoa (Bizkaia)






KÄRCHER
Banatzaile ofiziala







• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
 • Garraio zerbitzua.

Okindegia
+ Ke... PAN
Etxean bertan egindako pastelak

IGORRE
Lehendakari Agirre 11
94 656 65 52
Sabino Arana 35
94 657 3898

AREATZA
Goiko kalea 8
94 608 90 47

ARA OTZ
Landegian o jabetzen!

RUGBY TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!
 •09:30etik zabalik
 •Asteburretan pintxo bereziak


arratiko.zekorrak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa
 Aireztatzeko sistemak
 Aire zurgatze zentralizatua
 Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igoerreko Industrialdea
 Pab. D7
 Tel. Fax. 94 673 62 76
 Tel. 619 736 516
 48140 Igoerre Bizkaia

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

Olaxte
OPTIKA ZENTROA

Graduazioak
 Ikusmen terapia
 Ikusmen gubitua
 Begiko tentsioa
 Lentillen adaptazioa
 Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
 Tel. 94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

SEGA

Astondoak ezin izan eutsan Euskal Herriko txapela kendu Etxaburuari

Erredakzioa

Garagarriaren 12an jokatu zan Aian Euskal Herriko Segaxapelketea eta Alatzne Etxaburuagipuzkoarrak hirugarren txapela lortu

eban bertan, 469 kilo bedar moztuta. Zeanuriko Irati Astondoak 380 kilo bildu ebazan 20 minututan.

Euskal Herriko Txapelketea izan arren, Etxaburu eta Astondoaren arteko buruz burukoa izan zan



aurtengoa be. Lehenengo urtean hiru segalari neurtu ziran, baina atzen urte biotan bi baino ez. Ez zan sorpresarik izan, dana dala. Izan be, aurreko hilean segalari biak neurtu ziran azkoran eta segan eta errez irabazi eban gipuzkoarrak eta Astondoak, BEGITUri adierazo eutsanaren arabera, ez eukan txapela Arratiara ekarte-ko esperantza handirik.

Zeanurikoak lan ona egin eban eta 89 kiloko aldea izan arren, sailtan nahiko parean ibili ziran segalari biak eta ikuskizun polita eskeini eben. Astondoa atzetik joan zan, baina lau metro baino ez. Behe-behetik moztu eban bedarra gipuzkoarrak eta horrek egin eban diferentzia.

Europako Segaxapelketea

Aurten Europako Segaxapelketea Euskal Herrian izango da, Azpeitian (Gipuzkoa), eta han egongo da Irati Astondoa. Abuztuaren 28tik 30era bitartean jokatu da Loiolako basilikako zelaietan. Txapelketa hau herri kirolen nazioarteko gertaeretan garrantzitsuenetakoa da eta Euskal Herriak bertan bere selekzioa eta ordezkaria zuzena izango ditu.

Sei herrialdek hartuko dabe parte: Alemania, Austria, Hego Tirol, Suitza, Eslovenia eta Euskal Herria. Guztira 92 kirolari lehiatuko dira, 61 gizonetako eta 31 andrazko. Tartean, Arratiako bat, Irati Astondoa, hain zuzen be.

PELOTEA

Joko Alaiko txikienak handi

Irati Urien

Bagilaren 28an Bizkaiko Herri Arteko txikien finala izan zan Ortuellan. Munitibarko Lea-Ibarra taldea eta Zeanuriko Joko Alai lehiatu ziran bertan. Eموitza hiru eta hutsekoa izan zan, Zeanuri garaile. Izan be, partidu honeetan ez dau bikote batek edo besteak txapela eroaten, herriak baino. Martxel Goti, Bingen Beitia eta Eleder Galartza benjaminetan; Maren Emaldi eta Anton Erkiaga alebinetan; eta Beñat Etxeita eta Lander Erkiaga infantiletan izan ziran Joko Alaiko pelotariak. Finaleira heldu orduko Zeanurikoak Santurtzi eliminatu eben lehenengo, Zaldibar gero, Galdakao aurrerago eta Lea-Ibarra atzenean. Luis Angel Erkiaga Joko Alaiko presidentearen esanetan, urte hau sano ona izan da. Txapelketa pribaduak badira be Zornotzakoan txapel bi, hiru

Zaratamon, Olaztin beste bat.. lortu dabez gainera. Maiatzaren 16an Bizkaiko Txapelketea izan zan Gernikan eta han be zeanurizarrak irabazi eben alebinetan eta infantiletan. "Talde fuertea egin dabe. Handiagoak txikiagoakaz zein aldrebes, erlazino ona daukie euren artean. Benetan talde ona", adierazo dau Erkiagak.

Pelota jaialdia Andra Marietan

Jaietarako pelota partiduak antolatutue Zeanurin, Joko Alaiko pelota eskolan dagozan ume danak jokaturteko asmoagaz. Eureka batera Zornotza eta Aretako herriak konbidatu dabez besteak beste, lagun arteko partiduak osotuteko. Arrasti bitan izango dira, hilaren 14 eta 15ean. Jaialdia amaituteko afizionauen partidua eskeiniko da: Ander Elezkano-Alain Pujana vs Beñat Mendia-Joseba Sarasa.



MENDIA

Tontor bat urteko

Herriko lagun talde bat Pirineoetako mendi desbardinak igoten hasi zan orain dala hiru urte Arantzazun. Orduetik hona urtero gailur bat egitea da hartu daben bidea. 2013an Hiru Erregeen Mahaia izan zan helmuga, Anie (Añamendi) igaz eta Atxerito aurten. Berrogeta hamar urtetik gora daukiez danak, eta harro dagoz egiten dabenagaz. Partaideetako batek, Tere Zuazok, esperientzien barri emon deusku.

Irati Urien

Urtekerako kideak Arantzazuko Arginatx Mendi Taldekoak badira be, euren kontura antolatuten dabe dana eta edonor animau leiteke. Aitatutetako da badaukiela berezitasun bat; izan be, joaten diranen arteko batz besteko adina hirurogei urtekoa da. Taldeko zaharrena andrazkoa da eta 69 urte ei ditu. Mendizaleak

dira bai, baina ez dabe aparteko prestaketarik egiten, herriko Arginatx Mendi Taldeak hileru prestetan dituan bi urtekeretara joaten dira.

"2000ko bat egin behar dogu" esateagaz batera hasi zan Arantzazuko abenturea. Hiru igoretan hogeit persona inguru animau dira eta aukeraturtako hiru mendiak 2400 metroren bueltan ibili dira. Aitatutetako be bada lehenengo urtean partaide



Arantzazukoak Atxeriton.

kopuru horretatik bost gizonetako heldu ziralda Hiru Erregeen Mahaiaren gailurrera; bigarren urtean hamabi inguruk zapaldu ebela Anieko tontorra; eta aurten danak gozatu dabela Atxerito mendiaren goia. Ikurineagaz batera bertan ateratako erretratua emozinoz gogoratuko dabe beti. Partaideen esanetan sano polita izan da prosezua hori ikusi eta bizitea. Gogoan daukie lehenengo urtean Hiru Erregeen Mahaiarako biajea gogor suertau jakiera. Galdu egin ziran batzuk, ezin tontorrera heldu danak, bueltaka beste batzuk... baina gorabeherak

gorabehera, "esperientzia harelk taldeari frenau arazo barik akillitu" egin eutsala kontau deuskue, "norberaren burua kapaz dala konturatuten zara" gaineratu dau Tere Zuazok.

Garagarriaren herriko jaiak amaitu ostean abiatuten dira eta egun birako plana egiten dabe, gaube bat. Lehenengo egunean goizaldean urtetan dira Arantzazutik eta heldu orduan segiduan mendia igoteari ekiten deusie. Danak menditik bueltetan diranean aterpetxean afaldu eta lo egiten dabe. Hurrengo egunean etxera segiduan etorri barik turismoari

egiten deusie tartea. Honantzean Araian bazkaltzen dabe normalean, eta iluntzerako etxean.

Datorren urteari begira helmuga desbardinak bueltaka dabiz Arantzazuko buruetan. Batzuk Hiru Erregeen Mahaia errepikatu gura dabe; hori bai, danak igoteko asmoagaz. Badagoz altuago bat, zein bajuago bat igo gura dabenak. "Beste batzuk Monte Perdido heldu behar deusagula be bota dabe baina edadeko jentea gara eta orain artekoen antzekoak nahiko dira guretzat, sano gustura gabiz holantxe", adierazo dau Zuazok.

LEHIAKETEAK

**Dimako Kalenturak II.
Ipuin Erotikoen Lehiaketea****Erredakzioa**

Dimako Udalak eta liburutegiak Dimako Kalenturak II. Ipuin Erotikoen Lehiaketea antolatu dabe. Lanak urri lehenengoaren 1etik 22ra aurkeztu daitezke. Lehiaketa hau Basaurin Euskarabila alkarteak antolatuten ebanaren ondorengoa da, bere ildotik doa.

Basauriko Euskarabila alkarteak aurrendari izan zan euskerazko ipuin erotikoen lehiaketea antolatuten. Izan be, 1996an hasi ziran lehiaketea antolatuten, gazteen hizkuntza erabilereari eta irakurzaletasunari eraginkorra izan eitekela eretxita. Hamazazpi urtez antolatu eta hiru liburuetan jaso ebezan ipuin irabazleak. Liburu horreetan, Igorreko Janire Lopez eta Dimako Rafa Ugaldere narrazioak topau daiegun, arratiar honeek biak be Basauriko lehiaketea irabazi eben eta. 2012an, Euskarabila

alkarteak "etena egitea" ebatzi eta Euskarabila ipuin erotikoen lehiaketeak agur esan eban.

Baina 2014an, Dimako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketeak hartu eban Basaurikoaren lekukoa eta aurten Dimako Kalenturak lehiaketearen bigarren edizioa martxan da. Hamasei urtetik gorakoak hartu daiekie parte eta lanak, gitxienez lau orrialde eta gehienez hamar izan behar dabe.

Sariak

Basauriko lehiaketak eukazan sariak mantenduten dauz Dimakoak. Lehenengo saria 600 eurokoa da, bigarrena 400 eurokoa eta Arratiako lanik onenak 250 euroko saria izango dau. Sari banaketea urri bigarrenaren 23an izango da.

Parte hartzeako lanok helbide honetara bialdu behar dira: Dimako Kalenturak, Ipuin Erotikoen II. Lehiaketa. Dimako

Udala. Ugarana z/g 48141 dima@bizkaia.org
Dima (Bizkaia). Edo kultura. elektronikora.

helbide



LEHIAKETEAK

**II. AKKB Argazki
Lehiaketeak ura
hartuko dau
gaitzat****Erredakzioa**

Areatzako Kirol eta Kultura Batzordeak (AKKB) II. Argazki Lehiaketea ipini dau martxan. Aurtengo gaia, ura izango da eta urri lehenengoaren 3ra arte bialdu daitezke lanak kultura.areatza@gmail.com helbidera. II Areatzako Mendi Astean argazki erakusketea egingo dabe eta orduan emongo dabe irabazlearen izena. II Areatzako Mendi Astea urri lehenengoaren 9tik 12ra izango da.

Bakarrik euskarri digitalezko argazkiak aurkeztu daitezke eta argazkien gaia ura izango da. Hau da, erreka, urjauziak, hondartzak, itsasoa... Argazkilari bakotzak hiru argazki aurkeztu ahal dauz gehienez.

Aurkeztutako argazkiak AKKBk bere ekintza eta argitalpenetarako erabili ahal izango dauz. Hiru sari egongo dira, bertako produktuakaz osotutako otzarak.

25 URTEURRENA

- Garbiketa orokorrak
- Zaharbarritze eta mantentzea

- Fatxada, alfonbra eta moketa garbiketa
- Gainazalen leuntze eta beiratze lanak

Gure 25. urteurrenean, eskerrik asko gure lagun, bezero eta kolaboratzaileai. Beharrean jarraituko dogu zuon konfiantzea mantenduteko helburu sendoagaz. Mila esker.

LIMPIEZAS ARRATIA, S.L.

Bildosola Industrialdea E-1 · 48142 ARTEA
Goiko Kalea 19 · 48143 AREATZA
Tlf.: 94 673 96 61 Faxa: 94 631 70 01
limpiezasarratia@hotmail.com

PARKETXEA

Parketxea koloretsuago eta interaktiboagoa da barriztu ondoren

Erredakzinoa

Areatzan kokatuta dagoan Gorbeiaiko Parketxeko museoko lehen solairua barriztatu egin dabe. Barriztatze beharrak 2014ko abenduan hasi eta bagilean amaitu dira eta Gorbeialdeko fauna, flora eta ondare historikoa ezetutea oindino erakargarriagoa egitea lortu da maketai, marrazkiai eta panel interaktiboai esker.

Hiru solairu ditu Parketxeak. Lehenengoan, Gorbeialden 0-500 m. arteko altitudetan dagoan fauna, flora, eta abar azaltzen da; bigarrenean 500 eta 1.000 m. artekoa eta hirugarrenean 1.000 eta 1.470 m. artekoa. Lehenengo solairua da barriztu dana, Parketxeko sarrerea. "Orain koloretsuagoa da, panel interaktibo bat be badago... eta marrazki eta animalia gehiago" dino Nerea Etxebarriak Parketxeko Natur Inguruneke hezitzaileak. Honek joko handiago emoten dau eta

umeen interesa atrapatuko lagungarria da. Gainera, sarreran argazki handi bat ipini dabe non gagozan azalduteko. "Askotan turistak etorri eta ez eben jakiten ze museo dan hau eta zeri buruzkoa. Orain sartzeaz batera kurutzea, Arrabako zelaiak eta Gorbeia mendia ikusten dabez eta kokatu egiten dira".



Gorbeiaiko Parketxea Areatzan dago.

Ondare historikoa

Lehenengo solairuan, bailarari izena emoten deutsan Arratia ibaia, bere ertzetako basoak eta bertan bizi diran animaliak agertzen dira. Orain, ondare etnografiko eta historikoari be emon jako garrantzia eta baserriaren, eta batez be Arratiako baserriaren ezaugarriak azaldu, inguruko torretxeen eta euren funzinoaren barri emon, eta Untzeta Pikuko gazteluaren gaineko informazioa eta gazteluaren maketa ipini dabe.

Bizkaiko Parke Naturalen sarea

Parketxean bertan asko ikasi eta ondo pasetea badago be, Parketxeak ekintza asko antolatuten ditu: konzieniazino kanpainak, berbaldiak eta mendi urtekerak, beste batzuen artean. Garagarrilean berbarako, Juan Manuel Perez de Anagaz, Gorbeiaiko zutariak erakusteko ibilbide megalitiko antolatu eben eta arrakasta handia izan eban.

Armañonek, Gorbeiak eta Urkiolak Bizkaiko Parke Naturalen sarea osotuten dabe. Beharrak hiruron artean banandu eta ekintza desbardinak egun desbardinetan antolatuten ditue.

BEGITUREN Argazki Lehiaketeta.



Bialdu zure oporretako argazkiak urri lehenengoaren 25a baino lehenago.



Saria: Astegoien pasa Euskal Herriko landetxe baten.

Eskeintza honek abuztuaren 31ra arte baliu dau

2015eko uda

ESKEINTZA EZIN HOBEAK!

BEDARRA EBATEKOAK
-TIK **299€**

MOTOZERRAK
-TIK **199€**

ZUHAIXKAK EBATEKOAK
-TIK **99€**

ZURE DENDA ESPEZIALIZATUAN BAKARRIK

STIHL **VIKING**

GARAJE FELIPE

Garbe 2. Igorre (Bizkaia)
Tel./Faxa 94 673 63 39
garajefelipe@euskalnet.net

Montorra z/g. Amorebieta (Bizkaia)
Tel./Faxa 94 630 90 39

www.garajefelipe.es

AGENDEA

**ABUZTUAK 7
DIMA**

19:30ean, "Diman etxean gure doguz" errepresaliaduen aldeko konzentrazioa plazan.

**ABUZTUAK 8
AREATZA**

20:00etan, Behind taldea The Quiet Corner-en.

**ABUZTUAK 9
AREATZA**

Parketxeak antolatuta, berbaldi-tailerra "Sendabedarrak" Gabriel Vazquez adituaren eskutik.

**ABUZTUAK 10
BEDIA**

San Lorentzo. 12:00etan, meza Muratzen, baraskarria eta trikitixa eta Mus Txapelketea; 17:00etan, Briska Txapelketea (bikoteko bat gixienez herrikoa).

LEMOA

Azurrekako jaiak. 12:00etan, meza; 13:00etan, baraskarria txistulariakaz; 18:00etan, umeentzako jolasak; 19:00etan, Igel Txapelketea; 20:00etan, karretila entrenamendua; 20:30ean Karretila Txapelketea.

ZEBERIO

12:00etan meza eta ondoren baraskarria Elizondan.

**ABUZTUAK 14
IGORRE**

18:00etan, futbola. Andra Mari Saria. Arratia-Durango.

ZEANURI

Zeanuriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean. 02:30ean eta 04:30ean, jaietatik Arratiara bueltetako autobusa. Autobus geralekuan.

**ABUZTUAK 15
DIMA**

12:30ean, Olazabalen Txakoli Eguna.

**Txatarra ikuskizuna eskeiniko dau Malas compañías Zirko Taldeak Areatzan**

Jai egitarauaren barruan, abuztuaren 26an, eguaztenean, arrastiko zazpi 1'erdietan, Malas Compañías Zirko Taldeak *Txatarra* izeneko kale ikuskizuna eskeiniko dau Areatzan.

Txatarra publiko guztiarentzat egokia dan antzerki-zirku ikuskizuna da. Umorea, antzerkia, objektuen manipulazioa eta akrobaziak buztartzen ditu. Barrilez, taulez eta tramakuluz eregitako uniberso propio bat erakusten dabe, konformismo eta onarpenetik harago igo, jeitsi, jira, bira eta salto egingo dabe "asperraldi astunena dibersino bihurtuz".

IGORRE

Udako Jaia. Ikusi egitaraua 7. orrialdean. 18:00etan, futbola. Andra Mari Saria. Bermeo-Santurtzi.

ZEBERIO

13:00etan meza eta ondoren baraskarria Zeberio-gane auzunean.

**ABUZTUAK 16
BEDIA**

12:00etan, meza San Roke ermitan, baraskarria, trikitixa eta jantzak.

DIMA

Olazabalgo jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

IGORRE

18:00etan, futbola. Andra Mari Saria. Urbieta zelaian. Finala.

**ABUZTUAK 21
AREATZA**

20:00etan, Feel Acoustic taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

**ABUZTUAK 23
AREATZA**

Parketxeak antolatuta, berbaldi-tailerra "Sendabedarrak" Gabriel Vazquez adituaren eskutik.

Areatzako jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

**ABUZTUAK 24
ZEBERIO**

12:00etan meza eta ondoren baraskarria Urizar auzunean.

**ABUZTUAK 28
AREATZA**

02:30ean eta 04:30ean, jaietatik Arratiara bueltetako autobusa. Autobus geralekuan.

**ABUZTUAK 29
ZEBERIO**

11:00etan, txirindulari lasterketea Asel Ozerinjaregi XXI. Memoriale.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**PISUA SALGAI**

Igorren. 3 logela, saloia, komuna eta sukaldea. Biziten sartzeko moduan. Sano-sano argitsua eta eguzkitsua. Kalerantza emoten dau. 115.000 eurotan. Deitu 677 951 606 (Iru).

HOZKAILUA SALGAI

Hozkailua furgoneta zein karabanarako. la barria, hile bitan erabilia. 630 419 476 edo 94 631 71 45 telefonora deitu. Rosa (Artea).

DANERIK**BEHAR BILA**

Etxeko beharrak eta garbiketarako egiten dodaz. Kotxeduna 658 591 307.

PINTURA IRAKASLE BILA

Norbait prest egongo balitz pintura irakasteko eskola orduetatik kanpo Igorre aldean 10 urteko neska pare bateri, seguru konponduko garala. Interesatuak lcbilbao@gmail.com erabili, mesedez.

ETXEAK EDO GELAK ALOKAIRUAN

Conil de la Frontera etxeak zein gelak alokatzen dira. 647 126 074 Rosario.

BASERRIRAKO LAGUN BILA

Baserrian biziteko lagun bila nabil (Zeberio). Bilbotik ordu erdira eta herrigunetik (denda, mediku, taberna...) 10 minutura oinez. 200 euro personako, gastuak barne. Interesatuak deitu 687 338 515 telefonora.

BEHAR BILA

Igorretar euskalduna, ikasketaduna eta kotxeduna, urri lehenengoaren 1etik aurrera umeak zaindu eta etxea garbitzeko prest. Deitu 639 293 539 (Eider).

BEHAR BILA

Persona nagusiak eta haurren zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? Deitu konpromiso barik. Grisel 678 104 166.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1 Zertu Kultur Elkarteak emondakoa BEGITUREN kamisetea.

Mikel Altuna (Zeanuri)
Ibon Iza (Dima)



2 Axpe Goikoak emondakoa Garena txakolin kutxatxoa.

Ainhua Zuloaga (Igorre)




3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Errekadu. Odol mota guztien hartzaile. 2.- Birritan, bular. Umeen berbetan, sentzain. 3.- Azken letrea. Zati. 4.- Kanpo, landa. Nahi. 5.- Hilda ez dagoana. 6.- Bits. Begiak itxita. 7.- Saskil. Bokala. 8.- Bizkaieraz, piku. Osmioa. 9.- Birritan, umeen berbetan, gozoki. Azkar.

GOITIK BEHERA

1.- Mila erromatar. Itxita ez. 2.- Errepetidu ezker, kontuz. Eredugarri. 3.- Zilbor. Irabur. 4.- Uranioa. Dokumentu. Bokala. 5.- Adio. Galdetzailea. 6.- Jorrail. Musika notea. 7.- Bakarkakoa. Nitrogenoa.



Topau arte eszenikoakaz zerikusia daben
7 ikuskizun edo ekitaldi mota.

S	O	R	E	B	I	A	R	T	E
B	T	U	K	U	M	E	D	I	A
O	A	N	T	Z	E	R	K	I	A
R	K	L	I	B	A	K	O	A	Z
K	O	M	E	J	A	O	B	O	E
A	M	I	S	T	O	N	I	L	O
L	E	B	A	R	A	T	X	I	K
A	D	D	A	N	T	Z	A	G	U
B	I	G	E	R	T	E	U	N	L
O	A	I	D	A	R	R	A	O	K
K	A	S	E	B	A	T	O	X	I
E	T	R	A	U	Z	U	A	T	P
R	E	M	E	G	I	A	Z	O	U
I	Z	T	E	P	O	B	U	X	A
P	O	R	K	A	O	E	G	T	X

AKI MI KO

Zorrozkiilo



umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 52 96 • seimoda@hotmail.com

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 75

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Tfnoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**Egin zaitez
Begitu lagun!**

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGA, KONTABILITATEA
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskuratzeko zain egoteaz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: unozakul@eskola.net

INES ARENAS, PEDRO MARI LEGARRETA
"ALBARO" ETA GARAZI SANTOS

"Mundu guztiarentzat topagunea izan da Igorreko Axular Herriko Taberna"

Espainiako Auzitegi Gorenak hainbat Herriko Taberna zarratuteko epaia berretsi dau. Herriko Taberna horreen artean, Igorreko Axular eta Dimako Jentilzubi dagoz.

Pedro Mari Legarreta "Albaro" Axular Kultur Elkarteko lehendakariarengana eta Ines Arenas eta Garazi Santos bertoko langileakana jo dau BEGITUk oraingo egoerak zelan eragiten deuten jakiteko.



Erredakzioa

Auzitegi Gorenaren epaia dala eta, zarratu egin dira Herriko Tabernak? Herriko Tabernen kontrako neurriak hartzean hasita dagoz? Zein egoeratan dagoz orain?

Ez momentuz ez da Herriko Tabernarik zarratu. Eta ez dira oraingoz behintzat neurri berezirik hartzean hasi. Momentuz egoera, itzarrotekoa da. Alde batetik, ez dakigu sententziaren ezeuzina zelan egingo daben; bestetik, helegitea jarriko da Auzitegi Konstituzionalaren aurrean eta lehenengo neurri lez eskatuko da zarratzeak bertan behera ixtea sententzia difinitiboa-definitiboa izan arte. Baina ez dakigu zelan jokatu daben.

Axular Herriko Tabernako beharginak zarie ezta? Ines berteranoa eta Garazi hasibarria. Zuen lanbidea da Axularreko tabernari izatea?

Bai, guk Igorreko Herrikoan egiten dogu lana, Inesek astegunetan egiten dau eta Garazik, beste lagun batzuek batera, asteburuetan egiten dau.

Zelan eragiten deusue zuoi bertako beharginoi?

Guretzat egoera oso desegokia da. Ez dakigu zer gertatuko dan gure lanpostuakaz. Eta holako baldintzatan lan egitea gogorra egiten da.

Jentearen erantzuna egon da herriko tabernak defendidutako eta Arratian be mobilizazioak egin dira.

Bai, eta eskerrak emoten deuseguz mobilizazioetan parte hartu daben guztiak eta euren ardura eta ezinegona adierazo deuseguz guztiak. Epaia urten eban egun berean konzentrazino jentetsua egin zan Igorren eta beste egun baten Igorre eta Dimako Herrikoak lotuteko martxea egin zan. Horretarako aurretik dimoztarrakaz jarri ginan kontaktuan eta nahiko polito urten zan. Aurrerantza be Arratia mailan eta LIBRE ekimenaren barruan gauza gehiago egin beharko da seguru asko.

Kontaktuan zagoze Dimako Herriko Tabernakoakaz? Euren egoera antzekoa da? Desbardintasunik badago azaldu zeintzuk diran desbardintasunok.

Bai kontaktoa badago egoera bardinari aurre egitea dalako kontua. Baina egoerak diferenteak dira

Dimako kasuan lokala ez da Jentilzubi alkartearena eta lokal hori persona batek kudeatzen dau modu autonomoan.

Kalte ekonomik handia be ekarriko deuse Herriko Taberna eta Axular eta Jentilzubi alkarteai. Zenbateko kalteaz gabiz berba egiten?

Guk geure kasuari buruz egingo dogu berba. Berba bitan esanda, epaia lapurreta bat da. Gure gurasoak eta aitita-amamak gerra ostean ezetu ebanagaz lotzean da. Francoren garaian EAJren Batzokiak eta PSOEn "Herriko Etxeak" lapurtu ebanekoak.

Kalte argia da, jente askoren diruz eta lanez erosi eta txukundutako 200 metro koadro inguruko lokala lapurtu gura deuskue. Argi dago kaltea ikaragarria dala.

Zein izan da alkarte honeen eginbeharra? Ze ekintza kultural antolatu izan dabez alkarteok?

Gure kasuan, Arratiako Ezker Abertzalearentzat bere lan politikoa aurrera errotan lagunduteko gunea da hasteko, baina era berean mundu guztiarentzat topagune izan da eta izateko gogoia dauka.

Danetiko batzar, kantaldi, berbaldi, zinema emonaldi, eta abar egin dira eta egiten jarraitzeko borondatea daukagu. Axular Herriko Taberna mundu guztiarentzat dago zabalik.

Noiz sortu zan Igorreko Herriko Taberna eta Axular alkarte?

Aurretik beste lokal baten ibili baginan be oraingo Herriko Taberna 1986an zabaldu zan. Axular Elkarte sortu genduan, berrogei arratiaz inguruk, orduko 50.000 pezeta ipinita eta gainera kreditu bat eskatuta.

EH Bilduk eta EAJ-PNVk bat egin dabe hau txarresten, ezta?

Uste dogu kasu honek argi erakusten dauala Estaduak argi daukala gure herriaren askatasun bidean oztopoak non ipini. Hau Euskal herriarren kontrako beste eraso bat da. Danoi afektetan deusku. Akusatua izan barik zure propiedadeko lokal bat lapurtzen badeusue, zer da hurrengoa?

Aprobetxau gura dogu, eskerrak emoteko gure alde agertu diran guztiak: mobilizazioetan parte hartu, pertsonalki esan, laguntza eskaintzeagatik... edo Igorreko Udalarri ago batez EH Bildu eta EAJren botoakaz egoera gaitzetsi eta babesa emoteagaitik. Inplikazio bide hau jorratzen jarraituko dogu. Gure lemak argi dagoz: "Herrikoak libre eta zabalik!" eta "Euskal Herria libre!". Argi euki behar dogu bidea luzea bada be azkenengo berba geure garapena izango dala, Euskal Herri osoaren garapena.

*Danetiko batzar,
kantaldi, berbaldi,
zinema emonaldi,
eta abar egin dira
eta egiten jarraitzeko
borondatea daukagu.
Axular Herriko Taberna
mundu guztiarentzat
dago zabalik*

begitu
arratia ubide zeberio

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115